

BALOREZKO PROPOSAMENA

SECURITY 3.000

Buruari buelta asko eman eta gero, taldekideak erabaki dugu jarraian azalduko dizuegun proiektua gauzatzea. Ideia asko buruan izan ditugun arren, uste dugu aukeratu dugun produktu hau hobereena dela eta errenta gehien izango lukeena aldi berean.

Zein ez da inoiz presaka ibili etxetik irtetzerako orduan? Eta hau gertatzean nori ez zaizkio giltzak etxean ahaztu? Seguru asko, behin baino gehiagotan bizi izan dugu horrelako egoeraren bat eta kalean geundela konturatu gara ez geneuzkela etxeko giltzak gainean. Horren ondorioz, urduri jartzen gara eta sarrailagintzari deitzeko beharra sortzen zaigu. Honek sortzen duen gastuarekin! Horregatik arazo hau konpontzeko produktu bikaina asmatu dugu, *Security 3.000*.

Sortu berri dugun proiektu honekin, noizbait giltzak etxe barruan ahazten baditugu atea ixteko eta zabaltzeko aukera izango dugu. Horretarako mugikorrean aplikazio bat instalatu beharko da, *Security* aplikazioa. Mugikorreko aplikazioaz aparte, txartel batekin ere atea zabaltzeko aukera izango dugu. Behin aplikazioa instalatuta izandakoan, giltzak etxean ahazten bazaizkigu aplikazio honen bidez atea ixteko eta irekitzeko aukera izango dugu. Horretarako atean sentsoare bat txertatuko diogu gure bezeroari eta sentsoare honek harreman zuzena izango du mugikorrean deskargatuko duten *Security* aplikazioarekin.

Behin dena instalatuta dagoela, gure produktuaz gozatzeko aukera izango du gure bezeroak. Gainera, produktu honekin eta aplikazioarekin giltzak ez dira beharrezkoak izango, mugikorra ateari hurbilduz hau zabaldu edo itxi egin ahal izango dugulako. Horretaz gain, etxetik presaka irten ez gero eta atea giltzarekin ixtea ahazten bazaigu, zauden tokitik zaudela atea ixteko aukera izango dugu etxera bueltatu gabe, sortu dugun mugikorreko aplikazioaren bidez.



Gure bezeroari erabateko segurtasuna eskaintzen diogu. Gure lehentasuna honetan datza: noizbaiten gure bezeroen bati gure produktuarekin arazoren bat badu, bi

urteko garatia izango du. Aipatzekoa da erabili dugun materiala, gaur egun aurkitu daitekeen kalitate hoberena dela. Gainera, beste segurtasun enpresengatik desberdintzen gara. Izan ere, gure sentsoareak arazoren bat izan ez gero, gure konponketak guztiz doakoak dira. Berdin dio noiz eta non gertatzen den.